



‘Herriarentzako eskulturak’ bilduma aurkeztu dute Tolosan

PROIEKTUA ▶ Duela 15 urte hasi zuten eskulturaren inguruko zikloa amaitu dute

OMENALDIA ▶ Tolosako Ekinbide Etxearen 40. urteurrena ospatzeko ere baliatu dute aurkezpena ▶ 5



Ezker-eskuin: Rikardo Ugarte, Ana Arretxe, Jokin Bildarratz, Mikel G. Gurpegi eta Edurne Ormazabal. n. u.

OREXA ▶

Herrian konpondu beharrekoak, hiru jubilatuen esku

Juan Beristain, Jose Martin Iraola eta Migel Luloaga aritzen dira lanean ▶ 6

ELDUAIN ▶

Zeberriok eraman du Patxaran txapela

Agirrezabalarekin irabazi du 40-27 ▶ 5



N. URBIZU

Ardiaren ingurukoak ikasi dituzte Ilorreta baserrian

BEDAIO ▶ Gazta, artilea eta ardia beraren inguruko azalpenak jaso eta ikusteko aukera izan zuten atzo Bedaioko auzokideek, Ilorreta baserriera eginiko bisitan. Besteak beste, gazta on bat nola egin azaldu zuen Karlos Belokik. Gaur, Bedaioko ibilbidearekin emango diote jarraipena Kultur Asteburuari. n. u. ▶ 4

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOIA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
CNC fresatzeko makinaren programazioa (FAGOR)	40	2007-04-23	18 - 21
NEUMATIKA. Automatismu pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	2007-05-02	18 - 21
☑ CAD 2D (AUTOCAD Iniciación)	40	2007-05-07	18 - 21
HIDRAULIKA. Erregulazio automatikoen elementuak	20	2007-05-07	18 - 21
KALITATEA. Kalitatearen kudeaketa	20	2007-05-07	18 - 21
KALITATEA. Kalitate-Erramintak	24	2007-05-21	18 - 21
CAD elektrikoa (IGE-XAO)	30	2007-06-04	18 - 21

ESKAERAK ETA BESTE IKASTAROAK WEB ORRIAN

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47
Santa Iuzia, 17 – 20400 **TOLOSA**
idezkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAREA

UZTURRETIK ▶ FELIX IRAZUSTABARRENA

Eroso



Erasoa jasan duenari jaso izana bere errua dela esatea ez da berria, baina lotsagarria bai.

Emakume bortxatuak beti entzun behar izango du probokazioarena, kolpatuak zerbait gaizki egin izanarena eta askotan merezitakoa jaso izana. Etorkinak pairatzen dituzten miseriak beraiek bi-

latu dituztela, «bere herrian geratu besterik ez zuten» Komisaldegietan torturatua, presuntzio guztien gainetik da erruduna, ustezko terrorista bada behintzat, beraz berarena da kulpaa. Beste aldera begiratzen duen politikaria topatuko du edo torturatzaile beraren salaketa jasoko.

Poliziak milaka manifestari ostiatzen baditu, Bilbon ertzainen esku ikusi berri dugun bezala, erruak kokatzean dago egungo esku garbitzea. Gasteizko parlamentutik berehala luzatu zitzaizen erasotzaileei «kondiziorik gabeko babes»

Espainiako barne ministroak «ertzaintzak aireara kargatu zuten» esan zuen, eta polizia integrala kudeatzen duen alderdiak «ertzaintza estrategia jakin batean erabilia» izan dela aipatuko digu. Beraz ondo merezia zutela 81 urteko amona zaurituak, bi metrora pelotazoa edo borra kolpeak jasotakoak. Denak errudun

Hauteskunde demokratiko berriak datozkigu, eta berriro ere, Espainia liluratu nahi duen alderdi horrek Ezker Abertzalea ez bada aurkezten beraiek nahi dutelako dela esaten digu. Biktimitasmoan jokatzeko ari dela esango du Josu

Jon eskuindarrak «aurkeztu nahi badute, badakite zer egin behar duten». Horregatik egongo gara herrietan hainbeste bilkura, deialdi, firma bilketa, buruhauste eta lan egiten, azkenean baliagarri izango den jakin gabe. Guk nahi dugulako.

Alderdi horiek esaten dute, lege hori ez dela bidezkoa, ez dela demokratikoa, baina... bete egin beharko dute, duela lau urte bezala. Hala ere lasai, egoera horretaz aprobetxatu behar izatea tokatuta ere, gogo txarrez egingo dute. Bilboko alkateak esan berri du azken legealdian ezker abertzalea barik «askoz erosoago aritu direla» Erasoa onorio beraz eroso egotea. Eroso Espainia demokratiko honetan.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

DATUA ▶

10

Ziurtagiri. Gehiago lortu dituzte Tolosaldeko eragilek. Hala, guztira 66 izan ziren pasa den ostegunean Villabonan ospaturiko ekitaldian Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu zuten enpresa, saltoki eta entitateak. «Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateek eman dituzten urratsak, ematen ari direnak eta emango dituztenak dira, euskararen eguzkia pizten eta bizitzen duten argia», adierazi zuen Kontseiluko idazkari nagusia den Xabier Mendigurenek. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak ere jaso zuen bere ziurtagiria, *Guk zerbitzua eta lana euskaraz*, hain zuzen ere.

IRITZIA ▶ MIKEL GERRIKO URRETABIZKAIA (BAI EUSKARARI AKORDIOA HERRIETAN)

Eta udaberriarekin, Bai Euskarari eguzkia

Sei urte badira Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zuenetik. 6 urte, 130 herri, 1.400 ziurtagiri, 11 konpromiso, eguzki bakarra: euskara. Tolosaldean ere geroz eta gehiago dira Bai Euskarari eguzkiari sugaia ematen dioten enpresa, saltoki eta elkarteak. Aurten, Tolosaldeko 75 eragilek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Hobekuntza kuantitatiboa alde batetik, 10 entitate berrik egin dute bat egitasmoarekin, eta hobekuntza kualitatiboa bestetik: 6 eragilek —Bakalau Txiki Jai, Iturralde Harategia, Juan Bautista Barriola, Tolosaldea-Igeriketa Taldea, Xirimiri Txokolategia eta Zumeta Bizitegiak hain zuzen— mailaz igotzea lortu dute, hau da, euskaraz eskaintzen duten zerbitzua moduren batean edo bestean hobetu dute. Euskararen normalizazioari ekarpen paregabea beraz!

Beraz, aurtengo emaitzak ezin hobekak. Ez, beti dago hobetzeko zerbait, finkatzeko beste zerbait eta indartzeko beharra duen zer edo zer. Euskalgintzak egindako lana

izan da ezin hobetatz jo duguna. Tolosaldeko euskalgintza berrantolatu egin da eta bere egitura sendotzen dihardu. Aurtengo hedapen kanpainen esaterako, bi eremu zehatzetan egin du lan: Aiztondon eta Alegian. Bi zona hauetakoak dira hain zuzen ere aurtengo 10 Ziurtagiri berriak.

Horretaz gain, euskararen normalizazioa lortzeko dugun erronka handienetako bati ere ekin diote Tolosaldean. Lan-mundua-aren euskalduntzearekin gogoz aritu dira lanean. Eragile sindikalei Bai Euskarari Ziurtagiriaren nondik norakoak azaldu dizkiete eta oraindik aurkezpen horren fruituak jaso ez ditugun arren, lehenengo

hurbilteta besterik ez da izan, ildo beretik jarraituko dute proiektuarekin. Orainxe bertan, 75 eragileetatik 16 lan-mundua-aren alorrekoak dira: Caballero Aroztegia, Erniope Bidaia, ELA, LAB, Galdaragintza Burdin, H. Cid SL, Hol-Atz egur-tratamendua, Mahala Esnekiak, Neumaticos Rali, Sointek, Tauni S.A., Atari Aroztegia, Refractorios Kelsen, Tolosaldeko Apattarrea industriagunea, Lurra S.A., SAM Talleres de manipulación de papel eta Sutargi.

Aurrera begira, lan mundua euskalduntzen jarraitzeaz gainera, aurten emaitza onak ekarri dituen lanarekin segitzeko plana egin du Tolosaldeko euskalgintzak. Horrela, eta Aiztondo eta Alegiako egitasmoak alde batera utzi gabe, Ibarra edo Tolosan lan berezitua egitea da asmoetako bat. Zeinek daki zenbat herri, ziurtagiri eta konpromiso izango diren datorren urtean! Hori bai, gauza batean behintzat ez dugu inongo zalantzarik, Bai Euskarari eguzkiari sugaia ematen jarraituko diotela Tolosaldeko hainbat eta hainbat eragilek!

ETORKIZUNA

«Lan mundua euskalduntzen jarraitzeaz gain, emaitza onak ekarri dituen lanarekin jarraituko du Tolosaldeko euskalgintzak»

GUTUN@K ▶

Nori sinetsi?

Nork esaten digu egia? Norekin fidatu?

Horrelako galderak egingo zituzten martxoaren 8ko DVko herriko kronikan Jokin Bildarriz alkatearen esanak irakurri zituztenek: «Hitz egiteko eta erantzuteko txandak adostu genituen. Agindutakoa bete egin genuen eta, orain, publikoki salatu dute ez genielako hitz egiten utzi.»

Batzuek ez dute zalantzarik izango. Baina dudaren bat dutenentzat pista batzuk emango ditugu, baliagarriak izango zaizkielakoan gauzak argi edukitzea.

Politikariek, oro har, herritarren ordezkariek diren arren, ez dute egia esaten beti. Ikusi besterik ez dago, oso urrutira joan gabe, nola ibili diren komunikabideetan *Jon Jauregi-ren kasuarekin*.

Tolosako Udaletxean gaur egun dauden politikari batzuek ezkutatu egin dute herriarrentzat interesgarria zen informazioa eta behin baino gehiagotan ez digute egia esan gerontologikoaren itxeraz. Horixe gutzia dokumentazioarekin frogatu genuen Euskal Herria plazako gerontologikoan egin genuen azken batzarrean.

Mozioak aurkeztu ziren aurreko osoko bilkuran guk zera eskatu genuen: mozioa eztabaidatu behar zen plenoan beharrezko denbora emateko, argitzeko mozio horretan ilun

zeuden puntu asko eta asko. Horrelaxe geratu zen jasota 2006/11/29ko DVn eta osoko bilkuraren bidean (Udaletxean dago, zalantza bat duenak ikus dezan). Era berean, jasota geratu zen alkatearen adierazpena esanez gaia sakon aztertuko zela, eta, agian, pleno monografiko bat egingo zela.

Osoko bilkuraren aurretik egindako bileran (alkateak dio han adostu genituela txandak, etab.) hiru lagun egon ginen: bi plataformakoak eta, hiru argarrena, alkatea. Guk ueste genuen, mozioak plenora eramanda, beharrezko denbora hartuko zela gaiak eztabaidatzeko eta argitzeko. Alkateak prozedura eta txanda kontuak aipatzen ditu.

Gure hitz egiteko nahia (bidean jasota dago) hainbat gai argitu nahi genituelako eta geratu zitzaigun tonto aurpegia alkateak hitza ukatu zigunean, ez da ez gu aktore onak garela. Gu estafatuta sentitu ginen, adostutakoa ez zuelako bete.

Aurreko plenora joan ziren pertsonen testigantzak eta Udalaren mozioa onartu zen plenoan alkatearen portaeragatik doluminak eman zizkigutenek lagun dezakete argitzen, norbaitek zalantzarik badu, ea nork dion egia edo nor ari den behin eta berririo egia ezkutatzeko eta aldatzen, eta azken finean, zeinekin fidatu eta zeinekin ez.

MANU LEUNDA ▶ GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN

Minbizia eta lana

Laneko minbizia Laneko Gaitzen Zerrendan egon ez ezik, zabaldu ere egin dute. Enpresek eta Prebentzio Zerbitzuek, ordea, ez dute horren inguruko kezkarik. Osakidetza herritarrek dituzten ohi-tura osasungaitzei leporatzen die epidemia —zenbat erretzen duzu, zenbat alkohol edaten?— Ahaztu egiten dute, baina, «non, nola eta zerekin lan egiten duzu?» galdetzea.

Laneko minbiziak jota hil diren langileei buruzko datuak ezberdinak dira. Lanaren Nazioarteko Erakundeak ziurtatzen duenez, urtero 600.000 langile hiltzen dira munduan, eta laukoiztu edo boskoiztu egiten dira lan istripuen ondorioz gertatutako heriotzak, berez onartezinak. Europako Segurtasun eta Osasunerako Agentziak dioenez: «Urtero 8.900 heriotza eragiten dute lan istripuek Europan, eta 31.000 eta 56.000 arteko heriotza substantzia arriskuak erabiltzearen ondorio dira, horietatik 21.000 amiantoaren eraginez.»

Lan Ministeritzaren estatistikek, Eusko Jaurlaritzarenak bestelakoak dira: «Ez dago laneko gaixotasunek eragindako heriotzarik, gihar-hezurretako lesio arinak eta hipoakusiak besterik ez». Horrela, enpresetan prebentzioaren kultura eta ekintza eskasa izatea eragiten dute.

Euskadiko CCOO ahalegin sindikala egiten ari da lanean substantzia kantzergenoeen eraginpean egoteagatik sortutako gaitz eta heriotza ugari ikusarazteko eta aitortzeko. CCOO amiantoaren biktimak aitortzeko borroka egiten duenean ez du «kontu zaharren aldeko borroka egiten», enpresa-zuzendari batek zioen moduan. Lanean kantzergenoeen erabilpenak gora egiten du etengabe, substantzia kimikoak sartzen dira horien arriskuak ezagutu gabe, kantzergenoeekin lan egiten da horiei buruzko informaziorik gabe (asfalto, klorurodun disolbatzaileak, silize kristalinoak, zur hautsa, artsenikoa, formaldehidoa, beruna, desinfektatzaileak, olio mineralak...), eta ez da prebentzio egokirik egiten. Horrela bada, «erahilketa atzeratua» onartzen da (hamarkadak igaro daitezke gaitza nabarmendu arte). Onartezina da enpresa gehienek substantzia arrisku-tsuen inguruko informazioa eta prebentzioa saihestea, nahikoa baita apur bat arnastu edo horren eraginpean egotea gaitza garatu eta heriotza goiztiarra ekartzeko.

Mutuek edo Osakidetza minbiziaren jatorri profesionala aitortuko dutela pentsatzea amets hutsa eta etsigarria da. Langileek informazioa exijitu behar dute, erabilitako produktuen etiketak kontrolatu, substantzia arrisksuena ordezkatzeko eskatu, eta

gaitz baten jatorria lanean dagoen susmoa dutenean sindikatuari jakinarazi, minbiziaren zergatiak aztertu behar ditu. Horregatik, apirilaren 28aren aurreko egunetan, CCOO bultzada berria emango dio laneko minbizi aitortzearen aldeko lanari.

Sindikatuaren zatiketa ez dago justifikatzerik. Elkarrekin jarduteko borondaterik ez badago, «gehiengo sindikala» animatu nahi dut ekintzak burutu ditzaan, erreallitatea aldatzen duten laneko gaitzak ikusarazteko. Horrela, prebentzioaren kulturaren irabaziko genuke, eta laneko gaixotasun eta heriotzak saihestu. Ahaleginak merezi du, Animo.

JESUS UZKUDUN ▶ CCOO-KO LANEKO OSASUNEKO ARDURADUNA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Dagoeneko hasi dira internet bidez V. Hitza Argazki Lehiaketarako irudiak iristen. Gure Webgunearen behaldez orain arte iritsi direnak ikus daitezke. Sar zaitze, eta bide batez, anima zaitze zure Aste Santu oporraldiko argazki bat bidaltzen. Dagoeneko 40 argazki inguru bildu ditugu. Bidaide bidaia agentziak eskainita, bidaia zoragarri bat dago irabazleentzat. Ez galdu aukera!

▶ izena eta herria adierazi: HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

BEDAIO ▶ KULTURA

Gaztaz, ardiez eta artileaz ikasi dute llorreta baserrian

Bertakoek auzokideei azalpenak eman zizkieten; gaur, Kultur Asteburua bukatzeko auzoko ibilbidea egingo dute



Karlos Belokik gazta egin aurretik ardi esnearekin egin behar direnak azaldu zituen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Ilorreta baserria bisitatu zuten atzo bedaiotar askok: bertan, gazta on bat egiteko pausoak ikusi ahal izan zituzten, gaiari jantziak diren Karlos Beloki eta haren emaztearekin. Azalpenak eta lehengaiak gertutik ikusi ahal izan zituzten bertaratu ziren guztiak.

Ez zen hori ardienguztaren inguruan izan zuten esperientzia bakarra, ondoren, artilea nola moztu duten ikusi baitzuten: lehenik, makinarekin, eta bigarrenik, aitona-amonek moztu zuten moduan, guraizeekin. Ardiak jeitzeko makina berrien funtzionamenduz ere hitz egin zuen Karlos Belokik.

Ez zen horretan bukatu Bedaioko Kultur Asteburuko bitxikerien zerrenda: ardiaren artean, arkumetxo jaioberri zuri bat ikusi zuten, haren amak



Larrañeta baserria argazki zaharren erakusketan, Artubín. HITZA

emeki garbitzen zuela. Bedaiotarrek bataiatu zuten: Txuri. Ilorretako bizilagunek, espero ez zen mokadutxoak ere prestatu zuten.

Gaur, Bedaioko ibilaldia

Errota zaharrera joateko aukera ere izan zen, ondoren afaltzera joateko.

Gaur 10:30a aldera PR-112 bidea egingo dute, Balerdi in-

guruak ikusiz. Asteburu osoan zehar Bedaioko baserrien argazki zaharrak nahiz berriak ikusteko aukera izango da. 1950. urte ingurukoak daude Artubi elkartearen eskegita. Asteburuan bakarrik ikusteko aukera bazen ere, gutxienez aste guztian zehar izango direla adierazi dute bedaiotarrek. Gaur Artubi elkartearekin bukatutzat emango dute aurtengo Kultur Asteburua.

TOLOSA ▶ POLITIKA



Torquemada zerrendaburu

Erredakzioa ▶ Ezker Batua-Berdeak eta Aralar koalizioa aurkeztuko da aurten lehenengo aldiz, Tolosako Ezker Sozialaren eremua ordezkatzeko. Enrique Torquemada eta Inaki Irazabalbeitia izango dira koalizioaren zerrendaburuak. «Etxebizitza duin batera sarbidea, industria, euskara eta ingurumena izango dira», besteak beste, koalizioaren ardatz nagusi. ESTI EZEIZA

TOLOSA ▶ POLITIKA



«Prozesuaren eta hauteskunde demokratikoen alde»

Erredakzioa ▶ Ezker abertzaleak agerraldia egin zuen Tolosako udaletxean, eta bide batez, sinatu duten 900 lagunei eskerrak eman zizkieten. «Sinadurak urrats bat dira, beraz, prozesuaren eta hauteskunde demokratikoen alde». HITZA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Opel Corsa. 1996 urtekoa.

Egoera oso onean. 635 70 68 40.

Furgoneta. Furgoneta salden za

lana egiteko aukerarekin.

636 75 49 09.

Autoa. Volkswagen Passat VG

Sincro, 1999 urtekoa. 178.000 km.

8.000 eurotan. 690 78 57 01.

Etxebizitza. Alegian 3 logela, 2

bainugela, trastelekua eta

igogailudun etxebizitza. Bizitzera

sartzeko moduan. 685 73 35 62.

Lursaila. 3 hektareako mendiko lur

saila Legorretan, errepide ondoan.

Deitu 20:00etatik aurrera: 605 71

47 84.

Autoa. Opel Frontera 2.2 DTI

Limited salgai. 2001. urtekoa.

80.000 km. 12.000 euro.

657 79 51 76.

maila. Curriculumla helbide honetara bidali etzizako: Elbarren 1, leitzaldea@euskalnet.net.

Estetizista. Tolosako ileapaindegi

batetarako estetizista behar da.

Deitu ondorengo telefono honetara:

607 90 25 58.

Zaintzaile. Albizturren, 2 haur

zaintzeko pertsona behar da

autoarekin. 662 01 92 62.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria

behar da. 943 69 19 33.

Gidariak. Gidariak erakunde

publikoetarako. 943 44 48 66.

Harreragileak. Harreragileak

udalxetarako. 943 44 48 66.

Garbiketa. Garbiketa, mantenua,

gidariak, langileak, sukaldaritz

langileak... behar dira lanpostu

finkoak betetzeko. 943 29 82 32.

Suhiltzaileak. Suhiltzaileak,

basozainak, Ertzaintza, udaltzainak.

Erakunde publikoetarako hainbat

deialdi. 943 32 66 63.

Hezkuntza. Eusko Jaurlaritz

Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu

gorputz-hezkuntza, HH, LH,

ingelesa, euskara, musika, ALE, PT

eta aholkularitza: 943 32 66 63.

LANA

Sustapen lana. Bai Euskarari

Akordioaren sustapen kanpaina

egiteko pertsona euskalduna behar

da Leitzaldean. Gida baimena eta

autoa, beharrezkoak. 2 hilabete

lanaldi erdian. Administrazioako C

TOLOSALDEA, LASKORAIN IKASTOLA, ZEURE AUKERA

- Kalitatezko heziketa euskalduna.
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkiuzun ikastola

- **Batxilergoko eskeintza zabala duelako:**
 - Zientzia eta Teknologia
 - Naturaren eta Osasunaren Zientziak
 - Giza eta Gizarte Zientziak

Izena emateko epea: apirilaren 23tik maiatzaren 4era bitartean
Ikastetxeko idazkaritzan, Usabal Auzoa 26
Ordutegia: 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 18:00
Argibide gehiago: Tel.: 943 67 44 28 edo tolosa@ikastola.net

Nekazaritza, Lorezaintza eta Gune Berdeak lanitzen dituen Banaketa enpresa batek Komerziala behar du.

Tolosa-Lasarte bitartean kokaturik gaude.

▶ Baloratzen da:

- Esperientzia izatea salmentetan.
- Sektoreko titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea.

Bidali curriculumak: Villabona - 70 posta kutxa

TOLOSA ▶ KULTURA

TEEK duela 15 urte hasitako eskulturaren zikloa amaitu dute

Erakundearen 40. urteurrena dela eta, 'Herriarentzako eskulturak' izeneko bilduma aurkeztu zuten herenegun



Aurkezpenean: Rikardo Ugarte, Ana Arretxe, Jokin Bildarratz, Mikel G. Gurpegi eta Edurne Ormazabal. e. e.

ESTI EZEIZA

Herriarentzako eskulturak izeneko liburu eta DVDaren aurkezpena aitzakiatzat hartuta, hainbat herritarrek Tolosako Ekinbide Etxea zoriondu zuten herenegun. 40. urteurrena ospatzen duelako ez ezik, urte hauetan Tolosaren alde egin duen lan «handia» zoriondu zuten eta bide batez, txalotu. Jokin Bildarratz alkateak adierazi zuen bezala, 1967an, TEE jaio zenean, egoera politiko zaila bizi zuen Euskal Herriak, eta horren barruan, Tolosak. Gainera, arazo handiak zeuden baita ekintza kultural aurrera eramateko. Hala ere, honek aurrera jarraitu zuen. 1992an, erakundearen 25. urteurrena zela eta, hiribilduko leku desberdinetan eskultura erakusketa iraunkor bat jartzeko egitasmoa sortu zen, eta urte gutxi beranduago errealitate bilakatu zen. Orain 40. urteurrenarenkin batera, ziklo hori isten da.

Bildarratzek esan bezala, Tolosa Gipuzkoan kultur erreferente bilakatzen lagundu du TEEK. Hala, 2006an hainbat ekitaldi garrantzitsu egin ziren Tolosan: Abesbatza Lehiaketa, Titirijai, Erraldioen Bilkura, Amalur jardunaldiak, Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia, UNIMAKo Munduko Kontseilua... Urte «oparo» hori amaitu eta gero, proiektu berri eta garrantzitsuekin dihardute

orain lanean. Horren adibidea, Euskal Herri Plazan kokatuko den Txotxongiloen Nazioarteko Zentrua.

Kale erakusketa

Tolosako Ekinbide Etxea 25 urte betetzear zela, Antxon Elosegik, erakundearen lehenengo presidentea proposatu zuen, Tolosan, atari zabalean eskultura bat jartzea. Hala, erabaki zuten lan hau Jorge Oteizari eskaintzea. Honek pozez beterik onartu zuen proposamena, baina baldintza batekin, bere eskulturaz gain, euskal eskulturgintza eskolako kide gehiagok parte hartzekotan. Azkenik, Jorge Oteizak berak, Nestor Basterretxeak, Ricardo Ugarteri, Jose Ramon Andak eta Javier Santxotenen bost eskultura egin zituzten Tolosako

kaleetan ipintzeko. Hauek prezio simbolikoan eman zituzten lanak. Honela, 1994an, Tolosan Euskal Eskulturgintza Garaikideari buruzko erakusketa Iraunkorra inauguratu zuten. 2006an, Tolosaren 750. urteurrena zela aprobetxatuz, TEEK artista hauek elkar-tuarazi zituen berriro. Eskulturgile hauen lanei gehitu behar zaizkie ere, Eduardo Chillidarena, Tomas Hernandezena, Iñaki Olazabalena eta Koldobika Jaurregirena. Orain, eskulturgile hauei omenduz *Herriarentzako eskulturak* izeneko liburua idatzi du Mikel G. Gurpegi. Honekin amaiera ematen diote duela 15 urte hasitako zikloari. Honekin lotuta *enbidoa* bota zion Bildarratzeko Ricardo Ugarteri, oraindik Tolosako kale eta txoko ugari hutsik daudela esanaz,

KAZETARIAK (Erref.: 07-KAZB)

Berria egunkariak 3 kazetari behar ditu maiatzean eta ekainean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Lanean segituan hastea.
- Prestakuntza espezifikoa jasotzea.

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea, edo kazetaritza lanetan esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, apirilaren 27a baino lehen.

TOLOSA ▶ KULTURA



Sabino Arana Fundazioa bertsolari gazteak sarituz

Erredakzioa ▶ Sabino Arana Fundazioak antolatutako Bertso Paperen Lehiaketaren IV. aldiko sariak banatu zituzten atzo Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Juan Maria Atutxa Fundazioko lehendakariak. Leidorren ospatu zen ekitaldian, eskualdeko hiru gaztetxo saritu zituzten: Tolosako Bertol Murua, Albizturko Manex Lazkano eta Alegiko Imanol Irazustabarrena. E. EZEIZA

KIROLAK ▶

Patxaran Baines txapela Patxi Zeberioentzat da

40-27 irabazi zuten Uterga eta Urrutiaren aurka atzo jokaturiko itzuliko partidari

E. EZEIZA

Patxi Zeberioek eta Igor Agirrezabalak Patxaran Baines Txapelketako txapela irabazi zuten atzo. Aurreko larunbateko partida galdu ondoren, atzoko irabazteaz gain, 30 tantorekin azpitik utzi beharra zeuzkaten uterga eta Urrutia, azkenik 40-27 garaitu zutelarik.

Partida bikaina jokatu zuten Elduaingoak eta argi erakutsi

zuen frontoi luzean hobeto oso ongi jokatzeko duela. Partidaren hasieratik beraiek joan ziren aurretik, eta modu orekatuan aurreruntz joan ziren partida irabazi arte. Norgehiagokaren amaieran tentsio handia izan zen, 38-27an, bi eta hiru tanto falta baitzitzaizkien hurrenez hurren garai-pena lortzeko. Beraz, partida polita eta atsegina ikusi ahal izan zen Galarretan.



La Salle Berrozpe
ANDOAIN

BATXILERGOA LA SALLE-BERROZPEN

APIRIK 24 ATE IREKIAK
(17:00-20:00)

- ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA
- NATUR eta OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK
- * Metodologia berritzaileak
- * Lehen mailako ekipamendua
- * Orientazio-Tutoritza saiatua

Zure etorkizuna, gure erronka





Apirilak 23tik- Maiatzak 4ra
Aurrematrikula

La Salle etor. 5 Andoain
Tel.: 943 590 557
www.lasalleberrozpe.com

OREXA ▶ GIZARTEA

Jubilatu arren lanean

Hiru jubilatu arduratzen dira herrian egin beharreko konponketa lanez

ENERITZ MAIZ

Herri guztietan izaten dira, konpondu edota egin beharreko lanak. Eta Oresa herri txikia izanagatik ere, han edo hemen, beti izaten da zer egina.

Herrian egin beharreko lanak betidanik egin izan dira auzolanean, baina duela ia hiru urtetik hona, Oresako herriak hiru langile esku-zabal ditu era guztietako lanak egiteko. Juan Beristain, Jose Martin Malkorra eta Migel Luloaga dira bertako hiru jubilatuak. Herrian zerbait berri edota ezustekoren batean zerbait apurtu eta konpondu behar izanez gero, dei bat egitea nahikoa dute hiru gizonen artean bertaratu eta egin beharrekoak egiteko.

Aritz Luloaga herriko alkateak esan digunez «ni ez naiz beti herrian izaten eta norbait zerbait egitera etorri behar bada eta nora joan behar duen adierazteko edota kamioiren batek materiala non ustu behar duen esateko, hauetakoren bati deituz gero beti laguntzeko prest daude». Sarritan, txiki-keriak izaten dira konpondu, egin edota pintatu behar izaten dituztenak, baina, Udalarri langileen bat lan horiek egitera



Aspaldiko bidea zena auzolanean berri dute. ENERITZ MAIZ

joatea baino errentagarriago ateratzen zaio, jubilatu hauek egin eta ondoren afari edo hamaiketaren bat ordaintzea. Azken batean, «beti dago zerbait egiteko eta gauza horiek guztiak egiteko ezin duzu kanpotik jendea ekarri. Era berean, Oresa bezalako herri txiki batean ezin da pertsona bat eduki lan horietarako bakarrik. Udalak, materiala ekartzen die eta zerbait falta izanez gero, beraiek ekartzen dute. Ondo moldatzen gara». Konfi-

dantza kontua ere badela azpimarratu zuen alkateak.

Aldundikoekin ere, Oresa eta Lizartzako mugarrak non dauden erakusten hirukotea ibilli zen. Bestalde, herritarrek ere ondo dakite nortzuk aritzen diren konponketa lanetan eta Udalean abisua eman beharrean, jada zuzenean ere esan izan diete hirukoteari; esaterako, medikuaren kontsultako gortina erori dela eta jartzera pasa beharko dutela. Eta, agindu gabe ere, hiruren artean biatzen dute zer egina edo zer berrikoa.

Juan, Jose Martin eta Migel, osasunak laguntzen dien bitartean, Oresako herriak ez du kezkatu beharrik izango, beti prest egongo baitira honelako lanak egiteko.



Elizaren ondoko iturria ere berri dute hiru jubilatuak. E. MAIZ

JUAN BERISTAIN, JOSE MARTIN MALKORRA ETA MIGEL LULOAGA ▶ HERRIKO JUBILATUAK

«Baietz esango diegula badakite eta zerbait bada laster deitzen gaituzte»

Juan Beristain (1938), Jose Martin Malkorra (1939) eta Migel Luloaga (1948) orexarrak dira herriko lanez arduratzen diren hiru jubilatuak. Lan handiak direnean, auzolanean, beste herrikideen laguntzarekin egiten dituzte lanak.

Nolz hasi zineten lan hauetan?

Migel Luloaga. Inor ez zen animatzen honelako lanak egiteko eta behin hodi bat puskatu eta segituan konpondu behar eta gu hasi ginen eta orduz geroztik aritzen gara lan hauetan. Hiruror artean egiten ditugu lan gehienak.

Zer lan egin dituzue orain artean?

Juan Beristain. Iturri bat, hodiak konpondu, debaldeko deitzen diogun urari begiratu eta azkena egin duguna garai bateko bidea zena berrikoa

izan da. Orain egin dituzten etxe berrietara doana da. Pintaketa lanak ere bai. Isurbideak trabatuta daudenean garbitu eta beste hainbat lantxo. Festetako lanak ere auzolanean egiten ditugu eta ia herri guztiak parte hartzen du.

Jubilatu ondoren ezin geldirik egon?

Jose Martin Malkorra. Denbora erraz pasatzen da honelako lanik gabe ere baina egia esan gu hemen egoten ginen denbora pasa eta udalean inor ez zegoenez honelako lanak egiteko, gu hasi ginen eta hor jarraitzen dugu oraindik. Gehienean, bazkalostean elkartzen gara, kafe bat hartuz eta presazko lana bada bukatzen saiatzen gara, bestela asperetzean utzi egiten dugu hurrengo egunerako arte, inork ez digu ezer esaten.

Egiten dituzuen lan guztiak musu-truk dira?

M. L. Bai, hamaiketako edo afariren batzuk kentzen dizkiegu egindako lanengatik, besterik ez.

J. B. Beti baietz esango diegula badakite eta zerbait bada laster deitzen gaituzte. Garraio-kosturik ere ez diegu kobratzen eta!

Lan handiak direnean herriko gehiagok parte hartzen dute?

M. L. Bai, hiruror artean ezin ditugu egin lan guztiak. Gauza batzuk badira jende gehiagorekin egin beharrekoak. Guk antolatzen dugu nola egin behar den, materiala ekarri eta dena prest dagoenean eguna jarri eta beste herritarrekin batera auzolanean egiten ditugu lanak. Ondo portatzen da jendea. Lehen esan bezala, az-



E. MAIZ

kena egin duguna etxe berrietara doan bidea oinezkoak ibiltzeko moduan jartzea izan da **Ados jartzen al zarete lanak egiterakoan?**

J.M.M. Bai, gu primeran moldatzen gara. Gutxi gorabehera denok ideia berdinak ditugu eta bestela, batek ideia hobea izango du besteak baino eta batak besteari kasu egingez

aritzen gara. Eraikuntzan ibiliak gara eta esperientzia badugu honetan.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzue?

J. M. M. Gauza garen artean bai behintzat, Miguel oraindik gaztea daukagu eta.

J. B. Ondo moldatzen gara eta pixkana-pixkana elkarri lagunduz jarraituko dugu. ◀

JOAN JOXE AGIRRE ▶ BENEDITARREN KOMENTUKO ARTXIBOZAINA

«Hemendik urte batzuetara gehiago baloratuko da bilketa lan hau»

Euskal gaien argitalpenak biltzen egindako lana onartu eta idazluma eman dio Euskal PEN Klubak Joan Joxe Agirreri Lazkaon eginiko ekitaldian

ARKAITZ APALATEGI

Pasio handiz bizi du bere lana. Duela hamarkada batzuk liburuzain izateko ikasketak egin zituenetik, Lazkaoko fraide beneditarren liburutegiko arduraduna da Joan Joxe Agirre (Alegia, 1932). Liburutegiko zirikitu guztiak ezagutzen ditu. Egunotan liburuak txunkuntzen ari direla eta, barkamena eskatu du lehenengo. Burubelarrri dabil lanean. Pasa den ostegunean, Euskal PEN Klubaren saria jaso zuen, urtetan egindako lanaren onarpen moduan.

Urte hauetan egin duzun lana eskertu nahi izan dizu Euskal PEN Klubak. Zer esan nahi du idazluma horrek zuretzat?

Nik ez nekien PEN kluba zer zen ere. Bat-batean Dionisio Amundarain etorri zitzaidan eta kluba zer zen eta zertarako sortu zen azaldu zidan. Batez ere idazleen alde lan egiteko sortu zuten, bai eta idazleen aurkako erasoak salatzeke ere. Baina nire lana idazleenarekin bateratsu doanez, neuri ere babesa ematea pentsatu omen dute.

Ezustean etorri da beraz?

Ni ez naiz sari horren atzetik ibili. Pentsatu ere ez nukeen egingo horrelako sari bat emango zidatenik.

Zure bilketa urtetan isilean egindako lana izan da.

Liburuzain ikasketak amaitu nituenean pentsatu nuen hainbeste argitalpenen artean bazirela euskarazkoak eta Euskal Herriari buruzkoak. Zentsuraren garaia zen, eta garai-garai-ko historia egitekotan azken papertxo eta paskinak ere biltzea ezinbestekoa zela pentsatu nuen, biharko egunearan historia hori hobeto ulertzeko.

Lan horrek azken urteetan izan du oihartzuna, ordea.

Hainbeste urte eta gero, orain ari da oihartzuna izaten. Hona etorri diren ikerlariak izan dira gehien kritikatu dutenak artxibo hau ez dela behar bezala baloratzen. Urte askotan txakur txikirik ikusi gabe aritu gara hemen lanean. Orain ikusi dute altxor bat dagoela hemen, eta denek lagundu egin nahi dute orain. Baina non egon dira orain arte? Hor hutsune handi bat egon da.



A. APALATEGI / GOIERRIKO HITZA

Noiz ikusi zenuen bilketa lan honek zuen garrantzia?

Bartzelonan liburuzain ikasketak egin nituenean, mundu berri bat ezagutu nuen. Han egin zuten lana hemen ere euskal kulturarekin eta modu apalean egin zitekeela pentsatu nuen.

Zentsuraren garaia betebetean zela hasi zinen lanean.

Bai, debekatutako gaiak biltzen hasi nintzen. Gaur egun ezin da Euskal Herriko gaiak buruz tesi sakon bat egin hona etorri gabe.

Nola bildu dituzu paper hauek guztiak?

Jendeak barre egingo du, baina bando bat egin nuen, eta irratiz zabaldu genuen. Jendearen erantzuna oso ona izan zen, eta gauza asko eman zizkiguten. Aldizkari hauetako asko klandestinoak ziren, eta Amerikako errefuxiatuek bildu zituzten.

Kutunen bat izango duzu.

Zaila da bat esatea. Gure altxorretako bat ANV alderdiak 1936an atera zuen *Tierra Vasca* egunkaria da. Bilduma osoa daukagu hemen. XVII. mendean idatzitako liburuak ere badiutugu bilduman.

Artxiboaren etorkizunari begira, Foru Aldundiarekin jarri zarete harremanetan.

Artxiboak norbaiten esku gelditu behar du, desagertu ez dadin. Indarra duen instituzioren batek hartu behar luke honen ardura gu ez gaudenean. Aldundiarekin harremana izan dugu, artxiboa Gipuzkoatik atera ez dadin. Alde horretatik,

laster akordioaren bat lortzeko bidean gaude.

Hemendik kanpora ere ezaguna egin da Lazkaoko beneditarren artxiboa. Baina zein da bere berezitasuna?

Gure kriterioa inoiz ez da izan liburuak biltzearena. Horretarako badaude liburutegi hobekak, diru gehiago dutenak. Gu besteek ez duten horretan espezializatu gara. Aldizkariak eta egunkariak artean altxor handia pilatu dugu. Gerra garaiko egunkariak, euskaraz atera ziren lehenak eta abar ditugu, gaur egun arte; pentsa, HITZAREN aleak ere artxibatzen ditugu! Kartel eta pegatinetan ere oso artxibo zabala dugu. 16.000 kartel ditugu. Hau oso artxibo bizia da, eta gehitzen jarraituko du. Zenbat eta gehiago bildu, orduan eta gose gehiago izaten duzu gauzak lortzeko.

Lazkaoren izena ere zabaldu duzue munduan barrena.

Bai, bazter guztietako ikertzaileak etortzen dira gurera. Azken asteotan bospasei izan ditugu, denak kanpokoak. Askotan beste liburutegi batzuetara jotzen dute lehenengo, eta han ematen diete gure bildumaren berri. Izen handiko liburutegietatik jendea hona bidaltzea pozgarria da guretzat.

Ez al duzu uste hemendik urte batzuetara gehiago baloratuko dela bilketa lan hau?

Dudarik ez. Hemendik urte batzuetara askoz gehiago baloratuko da. Oraingoz hemen dagoen asko hiraingoa *berriegia* da. Baina hemendik urte batzuetara

ra artxibo honetan dagoena ez da beste inon egongo.

Dagoeneko urtebete igaro da Guardia Zibila komentuan sartu eta atxilotu zintuenetik. Nola gogoratzen duzu hura?

Horiek ere bitxikeria modura biltzen ditut orain. Niri buruz esandako guztiekin bi karpeta mardul beteta ditut. Azken batean, aldeko propaganda gehiago egin zigun kontrakoa baino. Baina hori hemen gertatu zen. Espainia aldean sekulako astakeriak esan zituzten. Ni haietaz ETAkoa izango naiz gutxienez. Miaketako une batean berotu ere egin nintzen. «*Tiene el Egin completo*» esan zuten batek. Nik erantzun nion Madrilo guztiak hemeroteka guztietan ere bazegoela *Egin*, eta egunkari horretan gain beste asko ere banituela. Aldekoak edo kontrakoak izan, argitalpen guztiak biltzen nituela esan nien, eta errespetua mezezi zutela.

Zein intentzio zuten zure ustez?

Ez dakigu zertara etorri ziren. Ordubate lehenago telebista desberdinetan eman zuten atxilotu egin nindutela, *capturado* hitza erabili zuten, ezta Sadam Hussein banintz ere! Nire ustetan, euskal kulturaren eta hemen zegoen giroaren aurrean 'Kontuz! Hemen gaude!' esatea zen euren asmoa. Baina egun hartan bezalako mugimendu politikorik ez da izan hemen. Alderdi politiko guztietako ordezkariak etorri ziren babesa ematera. Babes hori eskertzekoa da.

AZOKA ▶

Berrikuntza ugari eta giro alaia atzoko azokan

Baba, ilarra, zainzuria eta barazki zerrenda zabala topatu ahal izan zuten erosleek

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka animosoa eta argitsua azaldu zitzaizen lehenengo orduan azokara agertu zienei. Barazki zerrenda aipatzekoa izan zen atzo. Nobedate dezente, baba, ilarra, zainzuria edo eta patataren kasu, eta neguko barazki asko oraindik salgai. Azak, azaloreak, azelgak, azenarioak, letxuka edota babarrunak, besteen artean.

Perretxiko zerrendak ere atzo gora egin zuen. Aurtengo lehenengo mortxelak eta onddoak ikusi genituen, eta hauekin, 15 bat kilo zizanak 60 tan salduak. Kopurua behera egin du, eta Arabaldean datorren asteburuan duten festa ere ez du asko lagundu prezioak mantentzen.

Aipatzekoa da berdura plazan ikusitako apaingarriko landareen eskaintza. Dagoeneko udaberriaren guztiz sartuak gaude, eta datorren astean dagoen landare eta loraren azoka bereziaren aurrekoa izanik, itxura benetan harrigarria eskaini zuen atzo azokak.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Begonia	1,20	-
Txinar khabelina	2,50	-
Lobelia	4,50	-
Gineako Alegria	4	-
Hortentsia	12	-
Salbia	1	1,20

Bertako produktuak		
Onddoak	30	-
Ziza	60	-
Errezil sagarra	0,60	8
Intxaurra	2,50	4
Tolosako Babarruna	8	12
Txikoria	1	1,25
Porru	1	10

Produktu ekologikoak		
Intxaurra	4	6
Arroza	1,90	2
Erremolaxa	1,60	-
Aza	2,50	3
Mermelada	3	3,60
Azukrea	3,30	-
Arrautzak	3,50	-

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Bihar, 17:30ean ipuin kontaketa Alegiko Udal Liburutegian Lur Kortaren eskutik, 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.

Asteasu. Xabier Alkizalete asteasuarrak eta Jesus Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak aizkora apustua jokatu dute Asteasu pilotalekuan 18:00etan.

Tolosa. Tolosaldeko Emakumeen Munduko Marbako plataformak deituta, bihar 20:00etan Triangulon elkarretaratzea egingo dute, Tuteran gizonaren esku hildako emakumearen heriotza salatzeke, *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartu* lelopean.

Tolosa. Santa Luzia eskolari buruzko ikerketa lana egiteko argazkiak eta oroimenak bildu nahi dituzte. Gorriti liburudendako Juanjo Zabalarrekin hitz egin.

Tolosa. Udaberri dantza taldeko kideek hasi dituzte dagoeneko Bordon dantzarako entseguak. Hauek ostegunetan izango dira, 20:30ean, Usabal kiroledegian.

Zuzurkil. *Ahatexo itsusia* bihar 15:30ean Atxulondon, V. Antzerki Astearen baitan.

ZINEMA

Tolosa. *El ultimo rey de Escocia* thriller historikoa emango dute asteburuan



Herrian hazi eta hezitzeko bidea hasita

IRURA ▶ Irurako ikastola egiten hasteko lehen harria atzo jarri zuten. Plazatik ikastola eraikiko duten lurreraino kalejiran joan ziren, akordeoi eta txistuen laguntzaz. Marimi Ugalde alkateak eskerrak eman zituen, bai herritarrei, haurrei eta

baita duela 30 urte ikastola sortu zutenei ere. Ondoren, eta jende askoren laguntzaz, harria estaltzen hasi ziren lurra gainera botaz eta Irurako dantzariak Agurra dantzatu zuten. Bukatzeko, hamaiketakoia izan zuten pilotalekuan. N. URIBIZU

Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta bihar 20:30ean.
Villabona. *Eutsi!* filma emango dute asteburuan Villabonako Gurea zinemaren gaur 19:30ean eta 22:30ean eta bihar 22:00etan. Sarrera, 4 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leiza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

Bihar
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jurgi (Tolosa). Bihar 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat gure ebeko gizonxoari.



URTE ASKOAN
Dolores Urkola (Orendain). Muxu handi bat seme-alaba eta biloben partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza **Harpidedunen txokoa**

HITZAko harpidedunen artean **astelehenean 16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partidetarako sarrerak **zozketatu** ditugu!
 Hauek dira irabazleak:

- ▶ Izaskun Dorronsoro (Berastegi)
- ▶ Aitor Beldarrain (Tolosa)

Baleztena - Arizmendi
Apeztebea - Urberuaga

•••••

TITIN III - LASKURAIN
GONZALEZ - PASCUAL

•••••

Galarza V - Apeztegia
Berasaluze IX - Nalda III



aspepelota.com

HITZAko harpidedunen artean ostegunetan apirilak 26, 21:00etan, MARIZA

fado kantariak Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako **2 harpidedunentzako bina sarrera zozketatu** ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**



zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea